

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUHATZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Behin betiko onespena ematea Zuhatzako Administrazio Batzarraren titulartasuneko kaleen, landa bideen, baso pisten, lursailen eta mendien aprobetxamendu berezia arautzen duen ordenantzari**

Kontzeju honek, 2021eko otsailaren 21eko bilkuran, hasierako onespena eman zion Zuhatzako Administrazio Batzarraren titulartasuneko kaleen, landa bideen, baso pisten, lursailen eta mendien aprobetxamendu berezia arautzen duen ordenantzari. Jendaurrean egon den bitartean haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, ordenantza behin betiko onetsita geratu da. Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan, eta Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, oso-osorik ematen da argitara, indarrean sar dadin.

#### 1. artikulua. Xedea

Martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuenak, eta horrekin bat datozen gainerako lege xedapenek aurreikusitakoarekin bat etorritik, administrazio batzar honek bere titulartasunaren edo administrazioaren pean dituen kaleen, landa bideen eta baso pisten ohiko erabilera eta erabilera berezia zein arrunta arautzen ditu, kale, bide eta pista horiek behar ez bezala erabiltzearen ondorioz hondatu ez daitezten. Izan ere, baso ustiapenetako egurra eta enborkien garraioa, nekazaritzako ustiapenak, eraikuntza lanak eta lur mugimenduak direla eta, bertatik ibilgailu astunak ibiltzen dira eta horiek kale, pista eta bideak hondatu ditzakete.

#### 2. artikulua. Aplikazio eremua

Ordenantza hau administrazio batzar honen jurisdikzioko eta Zuhatzako Kontzejuaren ondasun eta eskubideen inbentarioan sartuta dauden kale, landa bide eta baso pista guztietan aplikatzen da.

Ordenantza honen ondorioetarako, bideak eta pistak izango dira udalerriko hainbat barruti landa eta mendi finkekin, ibaiekin, basoekin, herri lurrekin edo larreekin lotzen dituzten bide publikoak, gehienbat nekazaritza edo basogintzako finkekin eta/edo ustiategien lanetarako erabiltzen direnak.

Ordenantza honi dagokionez, kale, landa bide eta baso pista guztiak barnean hartuko dira, baita otsailaren 27ko 6/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erabilera, artapen eta zaintzarakoak, aipatzen duen bideen erregistroan sartuta dauden landa bideak ere, eta Arabako Foru Aldundiarekin koordinatuta kudeatuko dira.

#### 3. artikulua. Eskumenak eta zaintza

Zuhatzako Administrazio Batzarrari dagokio, behar denean Arabako Foru Aldundiarekin koordinatuta, administrazio batzar horren jurisdikziopeko kale, landa bide eta baso pista guztiak zaintzea eta haiei loturiko edozein eginkizun gauzatzea, zehapenak ezartzea barne. Zaintza lan hori administrazio batzarrak edo horretarako izendatuko den langileak egingo du, eta betebeharrak nagusia izango da ikuskatzea bai bide sarea bai kale, bide eta pistak zein horiek babesteko azalerak behar bezala erabiltzen direla, ondo erabiliko eta onik zainduko direla bermatzeko.

Zaintzaren ardura dutenek egingo diren arau hausteak salatu ditzakete, bai eta arau hausteak, ezagunak badira, identifikatu eta arau hausteari buruzko datuak hartu ere.

#### 4. artikulua. Lizentzia

ordenantza honetan arautzen diren eta administrazio batzar honen titulartasunekoak diren bideak edo baso pistak erabili behar dituzten garraiolariak edo kontratistek, jabeak eta erabiltzaileak baimena eskatu beharko diote Zuhatzako Kontzejuari. Eskabidean, honako datu hauek adierazi beharko dituzte

- Jabearen edo kontratistaren identifikazio datuak.
- Garraiatzeko erabiliko diren ibilgailuei buruzko datuak (matrikula, modeloa eta marka), eta egingo den joan-etorri kopurua, joan-etorri bakoitzean garraiatuko den zama eta joan-etorriak nondik nora egingo diren, kokapen plano batean adierazita.
- Garraiatuko diren materialen estereoak edo tona metrikoak.
- Garraioa noiz hasi edo noiz bukatuko den.
- Materialak pilatu behar badira, pilaketa non egingo den adieraziko da grafikoki.
- Materiala zein menditatik edo lekutatik datorren eta mendi edo leku hori non dagoen; egoki bada, katastroko erreferentzia zehaztu beharko da.
- Zein bide publiko erabili nahi den, egoki bada kokapen plano batean ibilbidea zehaztuta.
- Hala badagokio, egin beharreko mozketak egiteko baimena, tasazio-kubikazio inprimakiaren fotokopia eta basogintzan eskumena duen agintaritzak emandako baimenarekin batera.
- Administrazio batzarrak baimena emateak ez du esan nahi egin beharreko jarduera egiteko bestelako baimenik eskatu behar ez duenik.

#### 5. artikulua. Debekuak

Debekatuta dago honako hauek erabiltzea

- Beldar ibilgailuak
- Katedun ibilgailuak
- Arrasterako ibilgailuak bide zoruan
- Errodatzeko bandak dituzten ibilgailuak
- Gehienez 26 tona metrikoko pisu gordina duten ibilgailuak eta hiru ardatz baino gehiagoko kamioiak.
- Basoko materiala ateratzeko nahiz beste material batzuk garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuek ezin izango dute eraginik edo narriadurarik eragin kontzejuaren titulartasuneko edo administrazio bideetan.
- Inola ere ez da baimenduko zuhaiztiak edo bestelako laboreak landatzea, baldin eta beren ezaugarriengatik bidearen edo pistaren segurtasunari, egonkortasunari eta egoera fisiko egokiari eragin badiezaieke. Lursailaren jabeak izango du horrako horiek betearazteko ardura. Jakinarazi eta hala ere ez-betetzerean bat gertatuz gero, administrazio batzarrak subsidiarioki jardun ahal izango du. Ondoren, dagozkion erantzukizunak eskatuko dizkio jabeari, eta horren berri emango dio baso agintaritzari.

#### 6. artikulua. Ebazteko epea

Baimena eman ala ez ebazteko, gehienez ere 15 egun izango dira, aurreko 4. artikuluan esandakoa betez baimena eskatzen den egunetik aurrera. Denbora hori igarota berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera onetsi dela esan nahiko du.

## 7. artikulua. Tasak

1. Adituko da baimena ematen dela tasak ordaintzeko baldintzarekin (baldin eta tasarik ezartzen bada), eta, ordaindu bitartean, ezingo zaio ekin erabiltzeari edo aprobetxatzeari. Ordaindu beharreko tasez gain, landa bideen katalogoan sartuta ez dauden bideetan eskatuko den fidantzaren ehuneko 10 ere tasatzat joko da.

2. Tasa ordaintzen ez duenari baimena kenduko zaio, besterik gabe.

3. Kontzejuaren titulartasunaren edo administrazioaren menpe dauden bideen aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak direla-eta jasotako dirua bide horiek zaintzeko, mantentzeko eta hobetzeko erabiliko da.

Tasa zenbat den kalkulatzeko honako eskala hau erabiliko da:

BIDEAREN LUZERA	FIDANTZA
0,5 kilometro baino gutxiago	1,35 euro/estereo edo 2,04 euro/tona metriko
1 kilometro baino gutxiago	1,95 euro/estereo edo 2,94 euro/tona metriko
Kilometro bat baino gehiago	2,25 euro/estereo edo 3,42 euro/tona metriko

4. Zur pilatzeak eragiten zaion lurzatiaren barnealdean egingo dira. Material, egur edo apea pilaketak bideen edo zona publikoen ertzean egiten badira, honako tasa hau aplikatuko da: 0,15 euro/estereo edo 0,23 euro/tona metriko

5. Halaber, tasa hauek landa bideei ere aplikatuko zaizkie, otsailaren 27ko 6/95 Foru Arauaren peko bideen erregistroan inskribatuta badaude.

## 8. artikulua. Luzapena

Aprobetxamendua baimenean adierazitako egunean bukatzen ez bada, baimena luzatzeko eskatu beharko da.

## 9. artikulua. Agiriak aurkeztea eta zaintza

Garraioak dirauen denbora osoan, garraiolariak baimena ematen zaiola adierazten duen erabakiaren jakinarazpena eta tasa eta fidantza ordaindu dituela egiaztatzen duten ordainketa gutunak (jatorrizkoak edo kopia) eraman beharko ditu. Agiri horiek kontzejuaren arduradunei, basozainari eta/edo bide jagoleari erakutsi beharko dizkie, eskatzen badizkiote.

## 10. artikulua. Fidantza

Ordenantza honetan aipatzen diren bideak eta pistak erabili baino lehen, baimena eskatu duenak fidantza ordaindu beharko du. Fidantza hori bideak eta baso pistak erabiltzean sor daitezkeen kalteak ordaintzeko izango da. Fidantza diruz ordaindu ahal izango da edo egon daitezkeen kalteak ordaintzeko moduko bankuko abalaz. Halaber, administrazio batzarra ados badago, aseguru poliza bat erabili ahal izango da fidantza gisa.

Fidantza, gutxienez, 1.500,00 euro (mila eta bostehun euro) izango da beti.

Baso batetik egurra ateratzeko emandako fidantza ezin izango da beste baterako erabili, aprobetxamenduak batera egiten badira ere.

Fidantza itzultzeko prozedurari buruzko ebazpena emateko gehienezko epea hilabetekoa izango da, eskaera egiten denetik aurrera. Epea igarota berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera onetsi dela esan nahiko du.

Landa bideen katalogoko bideak erabiltzeagatik jarri beharreko fidantza Arabako Foru Aldundiak kudeatuko du.

**11. artikulua. Bideak garbitzea**

Aprobetxamenduaren onuradunek bideen edo pisten ohiko erabilera publikoa bermatu beharko dute beti, eta horretarako aprobetxamenduak dirauen denbora osoan beharrezko diren konponketak eta garbiketa lanak egin beharko dituzte. Horrela ez bada, lan horiek administrazio batzarrak egin ahal izango ditu onuradunen kontura.

Edonola ere, onuradunek behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte zirkulazioa ez eragozteko; beraz, ezin izango da bidean enborrik edo abarrik utzi eta ibilgailuek han utzitako produktuak (lurra, harriak eta abar) kendu egin beharko dituzte.

Horrez gain, onuradunek garbi eta bertatik igarotzeko moduan mantendu behar dituzte hormigoiz asfaltatutako zonak eta, behar izanez gero, urez garbitu ahal izango dituzte, beren kontura eta beren bitartekoak erabiliz.

**12. artikulua. Txosten teknikoak**

Bideak erabiltzen hasi aurretik eta erabili ondoren, Zuhatzako Administrazio Batzarreko langileek, edo eskuorde izendatutako pertsonak, bisita bat egingo dute bideak nola dauden ikuskatzeko, eta haien egoerari buruzko akta egingo dute. Akta egiteko, bertaratzeko gonbita egingo zaie eskatzaileari eta garraiatutako materialen jabeari, eta bertan izango da, egokitzat jotzen bada, basozaina ere. Aktan argazkiak, planoak, ikus-entzunezkoak eta abar sartu ahal izango dituzte, bertan adierazten dutena frogatzeko.

**13. artikulua. Konponketa lanak**

Txosten teknikoa ikusita, baimenaren titularrari eta garraiatutako zuraren jabeari egin beharreko konponketen berri emango zaie, eta egiteko zein tarte duten adieraziko zaie. Epea igaro bada eta egin beharreko konponketak egin ez badira, administrazio batzarrak berak egingo ditu, baina konponketen kostuak onuradunaren kontura izango dira, hau da, konponketak egiten gastatzen dena onuradunak ordaindutako fidantzatik kenduko da. Fidantzaren dirua nahiko ez bada konponketaren gastuak ordaintzeko, falta dena ordaintzeko eskatuko zaio.

Baldin, segurtasun arrazoiak edo administrazio batzarrak behar bezala egiaztatutako bes-telako arrazoiak direla eta, ezin bada geroratu kalteen konponketa, baimenaren titularrari eta materialen jabeari jakinarazi ondoren berehala lehengoratu ahal izango dira, eta dagokien zenbatekoa kalteak eragin dituenari eskatuko zaio gero.

Administrazio batzarraren bideren edo pistaren batean kalteak gertatuz gero, eta haiek batek baino gehiagok erabiltzen badituzte batera, erabiltzaileen artean banatuko dira proportzionalki kalteen erantzukizunak.

**14. artikulua. Jabeen erantzukizuna**

Garraiatutako materialen jabeak erantzule solidarioak izango dira ordenantza honetako betebeharre dagokienez. Haiek izango dute ardura administrazio batzarrari egurra ateratzeko asmoaren berri emateko, bai eta lana egingo duen kontratistaren gaineko ardura ere. Beraiek edo kontratistak ordainduko dizkiote administrazio batzarrari tasak eta fidantza, baldin eta azken hori ordaindu behar bada.

**15. artikulua. Bideak erabiltzeko egutegia**

Printzipioz, Zuhatzako Kontzejuaren kaleen, landa bideen eta baso pisten erabilera berezi-rako baimenaren ondorioetarako, abenduaren 15etik apirilaren 15era bitartean ezin izango dira inolaz ere bide horiek egurra edo enborkiak garraiatzeko erabili.

Era berean, eguraldia edo beste arrazoi batzuk direla eta, administrazio batzarrak ibilgailu astunen zirkulazioa debekatu edo baimendu dezake zirkulaziorako debekatutako egutegitik kanpo zein haren barruan. Ibilgailu astun horiek materialak eta lurra mugitzeko edo egurra edo

apeak garraiatzeko kale, landa bide eta baso pistetan egin behar duten ibilbidea zehaztea ere administrazio batzarraren esku egongo da.

Bestalde, eguraldi txarrarekin bideak bereizkuntzarik gabe erabili ez daitezen, eta halako garaietan kalte handirik gerta ez dadin, Zuhatzako Administrazio Batzarrak fidantza bat aurkezteko eskatu dezake, balizko kalteak zenbatetsi eta kalte horiekiko proportzioan kalkulatu dena; baimena geratu edo ukatu ere egin daiteke, baldin aurreikusitakoaren arabera kalteak konpontzea oso zaila edo garestia bada.

#### **16. artikulua. Baja aitortpena**

Aprobetxamendua bukatu ondoren, interesdunek baja aitortpena aurkeztu behar dute nahitaez, eta bertan adierazi behar dute aprobetxamendua bukatutzat jo dela. Aitortpen hori sinatu egin beharko dute bai baimenaren titularrak bai garraiatutako materialen jabeak ere. Zuhatzako Administrazio Batzarrari entregatu beharko diote, eta hura ados agertuz gero, bajak aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

#### **17. artikulua. Lur mugimenduak eta bestelakoak**

Bide horiek lurrag mugitzeko edo motordun ibilgailu astunak edo antzekoak erabiliz materialak garraiatzea dakarren beste edozein jardueratarako erabiltzen badira, jarduera horien enpresa titularrek ibilbide guztia onik zaintzeko betebeharra izango dute. Era berean, administrazio batzarraren baimena lortzeko izapideak ere egin beharko dituzte.

#### **18. artikulua. Ingurumen baldintzak**

Kaleak, bideak edo pistak erabiltzen dituen orok ingurumen baldintza hauek bete behar ditu

a) Ez da inolako hondakinik utziko bide eta pista bazterretan; esate baterako, plastikozko poltsak, arrastatze kableak, hondakin organikoak, gasolina latak eta antzekoak.

b) Bideetan ibiliko diren ibilgailuek ez dute gai kutsatzailerik isuriko, hala nola gasolioa, olioia, lubrifikatzaileak eta abar, eta egunean izango dute IAT txartela.

c) Lurrezko zorua duten bideak ez dira erabiliko baldin urez beteta badaudxx lurzoruaren profila hondatu ez dadin. Ibilgailu astunak lurrezko bideetan ibili ahal izango dira zorua lehor dagoenean.

d) Bidean zehar dauden ur etenak errespetatuko dira, erosiorik gerta ez dadin.

e) Kaltetutako zorua konpontzeko, ez da aldatuko aldameneko zoru zapaldu gabea; zorua berriz jarri beharra badago, material geldoa gehituko da.

f) Ondoren, lurrezko zorua duten bideak egokitzen direnean, lehenagotik zeuden ur etenak zeuden zeudenean utziko dira, eta besteren bat ere egin daiteke baldin tarteren batean urak abiadura handia hartzen duela eta tarte handi samarra egiten duela jotzen bada.

g) Ez da inolaz ere bidearen aldameneko zuhaitzik botako, inausiko edo landararik apurtuko, bertatik pasatzeko helburuarekin, erakunde eskudunak berariaz baimendu ez badu.

h) Errekaren bat zeharkatu behar bada, erabat debekatuta dago erreken ibilbidea aldatzea eta urertzeko landaretza hondatzea.

i) Administrazio batzarrak edo hark eskuordetuko duen pertsonak, basozainak eta/edo landa bideen jagoak ahalmena izango dute artikulua honetan jaso ez diren eta ingurumena zaintzeko egokitutako jotzen dituzten erabakiak hartzeko.

#### **19. artikulua. Motordun ibilgailuen zirkulazioa debekatzea**

Motordun ibilgailuek ezin dute inolaz ere baso pistetan ibili kirol jarduerak egiteko edo motordun ibilgailuekin antolatutako bestelako jarduerak egiteko, honako ibilgailu hauek ez badira:

– Suhiltzaileen eta poliziaen ibilgailuak eta bestelako ibilgailu ofizialak.

– Administrazio batzarraren berariazko baimena duten ehiza aprobetxamenduetako esleipendunen ibilgailuak, handik ibiltzeko baimena badute. Hirigunea eta Arabako Foru Aldundiaren Bide Erregistroan inskribatuta ez dauden landa bide inguruak izango dira aparkaleku eremuak. Baimenik gabeko ibilgailu guztiek erabat debekatuta dute baso pistetan, lurrezko pistetan eta mendi publikoetan aparkatzea eta zirkulatzea.

– Egurra atera, larreak erabili eta luberritzeetarako aprobetxamenduak zuzenean erabiltzen dituztenen ibilgailuak, aprobetxamendu bakoitzerako aplikagarri diren baldintza fakultatiboetan ezarritakoa betez.

– Administrazio Batzarrak salbuespenez emandako baimen berezia duten ibilgailuak.

Arabako mendietan motordun ibilgailuen zirkulazioa honako hauetan arautu da: Mendien Foru Arauan eta Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako toki erakundeen onura publikoko eta jabari publikoko mendietan motordun ibilgailuen zirkulazioa arautzen duen martxoaren 9ko 10/2010 Foru Dekretuan.

#### **20. artikulua. Abiadura**

Gehienez ere 30 kilometro orduko abiaduran ibili ahal izango dira ibilgailuak baso pistetan.

#### **21. artikulua. Tasak eta fidantzak eguneratzea**

Bost urtean behin, ordenantza honetan txosten teknikoaren arabera ezarritako tasa eta fidantzen zenbatekoei denbora horretan pilatutako KPI aplikatuko zaie.

#### **22. artikulua. Lursail publikoak**

Administrazio batzarraren baimena beharrezkoa izango da lursail publikoetan edozein lanabes, material edo produktu uzteko, hala nola nekazaritzako tresnak, eraikuntzako materiala, harriak, simaurra, egurra, belarra, ibilgailuak eta abar, eta administrazio batzarrak erabakiko du non utzi materiala.

Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea erabakitzen den arte.

Zuhatza, 2021eko otsailaren 21a

*Lehendakaria*

**FLORENTINO URQUIJO ORUETA**